

Udal talde politikoaren iritzia



2027. ERRONKA: ORAINAREKIN ETA ETORKIZUNAREKIN KONPROMISOA

Duela urtebete Getxoko Udala osatu zen getxoztarrek emandako babes eta konfiantza baliatuta. Orduetik Amaia Aguirre Muñoak gidatzen du Getxoko Gobernuak, eta legegintzaldi-programa nahiz -plana anbizio handikoak eta serioak dira; halaber, Getxoko herritarrek helarazi dizkiguten gaiekin konpromiso errealek eta egiazkoak hartzen ditu barne.

Getxoko Eusko Alderdi Jeltzaleak proposamen argiak eta zehatzak aurkeztu ditu, betiere zorrotasuna eta ardura oinarri hartuta, hauteskunde guztietan gudan konfiantza jartzen duten herritarren aurrean erantzun behar dugulako. Gobernuak urtebete egin du jada, eta Getxoko EAJ-PNV taldeak esan dezake zenbait konpromiso bete dituela gurea hiri zoragarria eta ilusio handien sorleku izan dadin.

Berronartzea eta isurketa gutxiko gu-
neak ezartzea, espazio irisgarriak eta



pertsonak erdigunean jartzen dituztenak, hala nola Areta-Romoko plaza berria, eta Kale Nagusia etorbide zoragarria bihurtzea (laster hurbileko guneean ere egingo da gauza bera). Hori guztia Getxo giza garapen jasangarriarekin konprometuta dagoenaren erakusgarri da eta argi dago bere lehentasunen artean daudela klima-aldaketaren aurka borro-

katzea eta ingurumena errespetatzea. Mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatuko dira Bidezabaleko bi arrapala berriekin; hilabete gutxi barru gaituko ditugu, zerbitzuaren kalitate ezin hobea eskaintzen jarraitze aldera. Ikusten gabilta errealtate bihurtzen dabilela Fadura Kirol Parke barria delakoa, Thinking Fadura prozesuan parte har-

tu duten pertsonen nahiz erakundeek ekarpenen emaitza. Aipatzekoak dira ere herritarrei arreta emateko eta gardentasuna nahiz parte-hartzea bermatzeko martxan jarritako sistema berriak eta hobekuntza etengabeak, guztion artean egungo eta etorkizuneko Getxo hobetzeko.

Nabarmentzekoa da ere erronkarik handiena, geroz eta posibleagoa dirudiena: Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria. Getxo hobea diseinatzeak barne hartuko du getxoztarrei eta bereziki gazteei erantzun egiteko eta etxebizitza-plana egitea, bai eta zerbitzu publikoen nahiz gizarte-, enpresa-, kirol- eta kultura-zerbitzuen eskaintza hobea bermatuko duten espazio eta ekipamenduak egitea ere.

Aurrera, batera! Denon artean aurrera egiten dugu etorkizunera begira dagoen Getxo lortzeko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko tokia izan dadin.



GETXOKO LOREZAINZA EHUN EGUNEKO GREBAN

Getxo udalerriko lorezaintza-zerbitzuaren enpresa adjudikazioduneko langileak greban jarri ziren haien lan baldintzak hobetu ditzaten eskatzeko helburuarekin. Hala, *apirilaren 2an hasi zen grebak* ondorio nabarmenak izan ditu gure udalerriko parke eta lorategi publikoen garbiketan, zaintzan nahiz mantentze-lanetan.

Horiek horrela, aipatzekoa da gaur egun horietako ia gehienak zaindu barik eta zikin daudela eta belar altuak nahiz in-
tsektuak ageri direla.

Horrez gain, dagoeneko ehun egun bete

dituen grebak berdegune horien erabiltzaileen eta getxoztarren haserrea eragin du.

Horregatik guztiagatik, Getxoko PP taldeak gobernu-taldeari eskatu nahi dio bere gain hartu dezan dagokion erantzukizuna eta aipatutako enpresako langileekin bildu dadin, egoera konpontzeko, eutsiezina bihurtzen baitabilta.

Era berean, adierazitako egoera salatzen jarraituko dugu eta gure esku dagoen guztia egingo dugu amaitu dadin.



ehbildu

GETXOKO HAPO: BESTE AUKERA GALDU BAT

Aurreko Getxoberrian salatu genuen EAJk eta PSEk, PPren ezinbesteko laguntzarekin, inposatu duten HAPO onartzeko prozesua. Azpimarratu dugun bezala, Udal Gobernuak uda aprobetxatu nahi du plana arin eta ezkutuan onartzeko, gure herriko etorkizuna baldintzatuko duen arren. Gogoratu behar dugu plan honek ezinegon handia sortu duela gure herrian.

Auzokideok 3 hilabete izan genituen gure alegazioak aurkezteko (epea luzatzea proposatu genuen baina EAJ-PSEk ez zuten nahi izan) eta Udal Gobernuak urte bi hartu ditu aztertzeko. Eta orain,

plan "berria" aurkeztu dutenetik onartzen duten arte, 10 eguneko epea utziko dute bakarrik, kaltetuek eta gainontzeko getxoztarrek dokumentazio guztia aztertzeko. Uztailaren 26an osoko bilkuraren onartuko dute, jai-zubi baten erdian eta paelletako ospakizunaren ostean. Hau da Udal Gobernuarentzat herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatzea.

Eta nola onartuko dute EAJk eta PSEk HAPO? Ba udal aurrekontuekin egin zuten bezala, modurik okerrenean, porlana eta espekulazioaren lagunekin, hau da, PPrekin. PPK oso lotsa gutxi

izan zuen (eta interes elektoral handia) HAPOren kontrako manifestazioetan parte hartzeko. Eta orain bere babes emango die, espekulazio eta negozio inmobiliarioen truke. HAPOk jaso dituen aldaketa batzuk, adibidez Lezama Legizamon edota Senerren lurzoruetan egingo direnak, horren erakusgarri izan daitezke. Etxebizitza sozialak, hori bai, legeak behartutakoa bakarrik izango da, eta herriguneeetatik aldentuta, noski. Etxebizitza libreak (eta luxuzkoak) erdigunean, batzokiko pelotazoa barne. EH Bildutik gure prestutasuna agertu dugu uneoro elkarriketarako eta nego-

ziatzeko. Alegazioak aurkeztu ditugu, proposamen errealek eta egingarriekin. Baina ez dira gai izan gurekin harremanetan jartzeko, bilera batera deitzeko, akordioaren bat lortzen saiatzeko. Argi dagoelako PPrekin akordio batera heldu direla, erakuntza masiboa sustatzen jarraitzeko. EAJk eta PSEk euren propaganda guztia aktibatuko dute uztailaren 16an (egun horretan publikatuko da HAPO "berria") euren planaren onura guztiak saltzeko. Baina zoritxarrez, beste aukera galdu bat izango da, ez dielako aurre egiten Getxok dituen erronka eta beharrian guztiak.

PSE-EE
PSOE

INDARKERIARIK GABEKO JAIK



GUZTIONTZAKO
JAIK!

Udan dira **Getxoko auzoen jaiak**: Paellen jai ospetsua, Algortako jaiak, Romokoak, Portu Zaharrekoak, Aretakoak, Santa Anakoak eta Hezetasunekoak. PSE-EEtik getxoztarrek animatu nahi ditugu auzoetako egun horiez **gozatu dezaten eta ondo pasatu dezaten**, baina beti **tentuz eta elkarrekiko errespetua oinarri hartuta**. Getxon argi daukagu nolakoa den nahi dugun jai-eredua: **pertsonak errespetatzen dituen eta indarkeria-mota ororik gabekoa**. Izan ere, helburua da **berdintasunean oinarritutako eta erasorik gabeko jaiak** izatea eta edozein eraso edo abusu gertatuz gero, erantzutea, biktimari

babesa ematea eta salatzea. **Behin eta berriz esango dugu: bakarrik bai da bai!** Emakumeok jaietara joateko, dantza egiteko, hitz egiteko, barre egiteko eta gozatzeko eskubidea dugu. Aisialdia partekatze eskubidea dugu, baita gaueko aisialdia ere, **nahi dugunekin, beldurrik gabe eta seguru egoteko**, eta hori guztia berdintasunean oinarrituta. Nabarmendu nahi dugu eraso erasotzailearen erantzukizuna dela beti, inoiz ere ez biktimarena. Hala, prebentzio-politikak eta balioetan oinarritutako heziketa bultzatu behar dira desberdintasuna desgerrazteko, horixe baita indarkeria matxista oren iturria.

Osoko Bilkurak gure proposamena onetsi zuen jaiak irisgarriagoak izan daitezke. Onartu zuen desgaitasuna dutenentzako gune bat jartzea, kontzertuetan haien irisgarritasuna eta ikusgarritasuna hobetzeko. Horrez gain, aurretik bi proposamen egin genituen, higiene pertsonalari lotutako laguntza-beharrian handiak dituztenei zuzendutako aldagelak eta komun irisgarriak instalatzeari buruzkoak.